

BID-REX

Interreg Europe



European Union
European Regional
Development Fund

www.euskadi.eus/bid-rex

BID-REX - BIODIBERTSITATEARI BURUZKO DAUETATIK ERABAKIETARA: NATURAREN BALIOAK HOBETZEA ESKUALDE MAILAKO GARAPEN POLITIKAK HOBETUZ

EUSKADIKO EKINTZA-PLANA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

innobasque
berrikuntzaren
euskal agenzia agencia vasca
de la innovación

BID-REX- EUSKADIKO EKINTZA-PLANA

Data	2019ko martxo
Idazketa	Marta Iturribarria (Eusko Jaurlaritza) Marta Rozas (Eusko Jaurlaritza) Goizalde Atxutegi (Innobasque) Gotzon Bernaola (Innobasque)
Jabea	Eusko Jaurlaritza



www.euskadi.eus/bid-rex



EDUKIA

HELMUGA: NORA JOAN NAHI DUGU?	2
BID-REX proiektua	4
TESTUINGURU ESTRATEGIKOA.....	6
Euskadiko EGEF Programa Operatiboa: 6. Lehentasuneko ardatza: «Ingurumena babestea eta baliabideen efizientzia sustatzea»	6
Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia	7
Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria	7
Gobernu Irekiaren Euskadirentzako 2018-2020 Ekintza Plana	8
Euskadiko 2020ko Agenda Digitala	8
Euskadi 2020 Agenda Digitala Eusko Jaurlaritzak Euskadin Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea egoki sustatzeko diseinatu duen plan estrategikoa da, eta horretarako hainbat neurri traktore eta bultzatzaile antolatu ditu, 2016-2020 aldirako.....	8
XEDEA: ZER LORTU NAHI DUGU EKINTZA PLAN HORREN BITARTEZ?	9
PROZESUA: ALDERDI INTERESDUNAK BARNE HARTZEA	9
EKINTZAK: 5 ARDATZETAN OINARRITZEN GARA.....	10
Naturari buruzko informazio-sistema	10
Ezagutza-sarea.....	12
Ezagutza aditua sortzea eta osatzea	15
Finantzaketa publikorako irizpideak	18
Herritarren zientzia	23
Ekintza-planaren ebaluazioa	27
ERANSKINA. JARDUNBIDE EGOKIAK ETA BESTE ERREFERENTZIA BATZUK	28

HELMUGA: NORA JOAN NAHI DUGU?

Gure ongizatea eta bizi-kalitatea kapital naturalean oinarritzen dira, hau da, biodibertsitatean. Biodibertsitatea ekosistemek ematen dizkiguten ondasunen eta zerbitzuen oinarria da.

Biodibertsitatearen alorrean, 2020. urterako aurreikusi diren Europako eta mundu osoko helburuak lortzeko ezinbestekoa da **biodibertsitatea eta ekosistemen zerbitzuak hobeto ulertzea, politika egokiak** landuko baditugu.

Natura-eremuak eta biodibertsitatea babestu eta lehengoratzeko politika egokiak sortzeko, behar bezala mugiarazi behar da informazio zehatz, adierazgarri, egituratu eta eguneratua, erabaki egokiak har daitezten.

Biodibertsitateari buruzko informazioa oso konplexua da, jakintza zientifikoz osatutako oinarri garrantzitsua eta guztiz espezializatua duena. Ekosistemak denboran eta espazioan etengabe aldatzen diren sistema dinamikoak dira. Beharrezkoa da jarraipen-sistemak izatea, lurralde desberdinetako ezagutza txertatzea eta aldaketa-faktoreak ezagutzea, besteak beste, espezieen banaketa-aldaketak, migrazio-fenomenoak edo inbasio biologikoen problematika ulertzeko.

Labur esanda, ahalik eta informaziorik onena behar dugu gai zehatzei erantzuteko:

- Politikak eta dokumentu estrategikoetan eta araudian zehaztutako helburuen betetze-maila ebaluatzeko.
- Biodibertsitatearen (espezieak/habitatak) eta ekosistemen egoeraren (bizitasuna, erresilientzia eta produktibitatea) arteko lotura, eta ekosistemen egoeraren eta ekosistema-zerbitzuak emateko gaitasunaren arteko lotura ulertzeko.
- Funtsezko gaitetan eta sektoreetan iraganeko eta etorkizuneko aldaketa-joerak ulertzeko (agerlekuak-ereduak).

Bizi garen ingurune konplexua eta aldakorra ulertzeko, datuak jaso, elkarrekin lotu eta interpretatuko dituzten pertsonak behar ditugu. Espezialitate desberdinetan eta kalitate handiko ezagutzak sortzen lan egiten duten eta, beraz, biodibertsitateari ekarpenak egiten dizkieten pertsona eta erakunde asko daude (unibertsitatea, ikerketa-zentroak, aholkularitza-enpresak, natura-sozietateak, administrazio publikoa eta abar). Horiek guztiak batzen ez baditugu eta ezagutza guztia partekatzen ez badugu, ez ditugu gure ongizatean eta bizi-kalitatean zuzenean eragiten duten arazoak konponduko. **Elkarlanean aritzea ez da aukera bat, behar bat baizik.**

Elkarlanean aritzeak datuak partekatzea esan nahi du, formatu irekietan eta berriz erabiltzeko moduan, azterketa integrala hainbat ikuspuntutatik sustatuz eta azterketa partzial batek bestela emango ez lituzkeen harremanak eta inpaktuak barne hartuz. Elkarlanean aritzeak elkar konektatzea, motibatzea eta aitortzea, eta pertsona guztien lana baloratzea esan nahi du.

Gainera, hainbat iturritatik datozen datuak eta informazioa interpretatzeko, datu batzuk eta besteak lotu, horiei testuingurua eman, estandarrak adostu eta kalitatezko irizpideak ezarri behar dira.

Lankidetzeta-prozesuak arrakastatsuak izan daitezten, funtsezko hiru alderdi hauek bermatu behar ditugu:

- **Sinesgarritasuna**; prozesuaren zorrotasunak, partaideen gaitasunek eta hartzen diren erabakien gardentasunak bermatzen dute.
- **Garrantzia**, gizartearen premiak kontuan hartuta eta erabakiak hartzeko.


- **Legezketasuna**, eragile garrantzitsu guztiak barne hartuz, bestelako balio, sinesmen eta interesak zuzen eta gardentasunez tratatuz.

Gure ongizateari eta bizi-kalitateari eusten laguntzeko naturatik lortzen ditugun onurak dira ekosistemen zerbitzuak.

Banaka eta kolektibo gisa hartzen ditugun erabakiek naturari eta naturak ematen dizkigun zerbitzuei eragiten diete.

Zerbitzu horiek jasotzen jarraitu nahi badugu, beharrezkoa da naturaren kudeaketa iraunkor bat egitea gure ekinbide eta politika guztietan.


Horretarako, kalitatezko informazioa behar dugu: informazio zehatz, adierazgarri, egituratu eta eguneratua, eta informazio hori interpretatuko duten pertsonak, hala, beharrezkoa den ezagutza sortu eta ingurunean modu adimendunean eta jasangarrian esku hartu dezagun.



1. IRUDIA DATUETATIK EZAGUTZARA

BID-REX PROIEKTUA

BID-REX Interreg Europe programak finantzatutako proiektu europar bat da. 5 urteko iraupena du (2016ko apirila - 2021eko martxoa) eta bi helburu ditu:



Eusko Jaurlaritzarekin batera, Europako beste 6 eskualdek parte hartzen dute: Kataluniak, Norfolk Konderrriak (Erresuma Batua), Marche eskualdeak (Italia), Ljubljana Marsh (Eslovenia), Iparraldeko Lautada Nagusiko eskualdeak (Hungaria) eta Valoinak (Belgika).

Proiektuak **eskualdearteko ikasketa interaktiboko** prozesu bat garatu du. Proiektu horren xedea da ingurumenari buruzko informazioa eskuratzearen eta erabakiak hartzearen arteko aldea gutxitzeko erabilgarriak izan diren ikuspegiak, tresnak eta metodoak ematea. Zehatzago esateko, tokian tokiko eta eskualdeen arteko ikasketa-prozesu bat ahalbidetzeko diseinatu da lan-plangintza, modu logikoan eta antolatuan planifikatua, jardunbide hobeak aztertze eta trukatzeko hitzaldi, mintegi eta bisita inguruan. Jarduera horien plangintzak ezagutza integratzen joatea ahalbidetu du.

Lantegi tematikoak dira —elkartrukerako jarduera nagusiak— proiektuaren lan-plangintzaren ardatz nagusia. Jardunbide egokien inguruko ezagutzen trukaketa eta eskualdeko erronken eta ustezko irtenbideen inguruko eztabaida eragile eta tokiko aktoreen talde bakoitzaren alde aurretiko esperientzietan eta ezagutzetan oinarritzen dira. Elkartruke-jardueren gaiak eskema jakin baten arabera lantzen dira: eskualdeen premiekin hasten dira, tresnekin eta metodologiekin jarraitzen dute, eta politiketan eragiten duten inpaktuarekin amaitzen dira.

Ikaskuntza-prozesu partekatu horrek honako emaitza hauek lortzea du helburu:

Lehentasunak hobetzea biodibertsitatearen arloko kontserbazio-ahaleginari dagokionean, biodibertsitatearen eta ingurumenaren inguruan eskuragarri dauden datuetan oinarrituriko metodoak erabiliz



Gida bat. Europako natura-ondareari babesteko esfortzuei emaniko funtsen eragina handitu ahal izateko biodibertsitateari buruzko datuak nola bildu eta erabili beharko genituzkeen azalduko du.

Eskualdeen arteko trukearen ondorioz, inplikaturiko eragileek eta kideek **biodibertsitatearen inguruko datuak kudeatzeko beren gaitasunak hobetuko dituzte**

Eskualde bakoitzerako Ekintza Planak informazio xehatua ematen du lantegietan ikasitako guztia nola aplikatu litekeen jakiteko, betiere eskualde bakoitzean jorratutako erreminta politikoa hobetzeko helburuarekin.

TESTUINGURU ESTRATEGIKOA

Planaren testuinguru estrategikoa bi alderdi osagarrien araberakoa da, hau da, edukiaren esparrua nahiz prozesua edo Plana ezartzeko harreman-eredua jasotzen eta kontuan hartzen dituztenak. Bi alderdi estrategikoen elkarguneak (zer eta nola) euskarri-puntuak ematen dizkio Planari, elkarlaneko ikuspegi berritzaile batetik erronkari aurre egiteko.

	<p>EDUKIA alderdia</p>	<ul style="list-style-type: none"> •Euskadiko EGEF Programa Operatiboa 2014-2020 •Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia 2030
	<p>PROZESUA alderdia</p>	<ul style="list-style-type: none"> •Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Euskadiko Liburu Zuria •Gobernu Irekiaren Euskadirentzako 2018-2020 Ekintza Plana •Euskadiko 2020ko Agenda Digitala

EUSKADIKO EGEF PROGRAMA OPERATIBOA: 6. LEHENTASUNEZKO ARDATZA: «INGURUMENA BABESTEA ETA BALIABIDEEN EFIZIENTZIA SUSTATZEA»

[Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF Programa Operatiboa](#) dokumentuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan esku hartzeko estrategia eta helburu tematikoak zehazten dira, 2014-2020 programazio-aldirako, Eskualdeen Europako Funtsez (EGEF) kofinantzatutako jardueri dagokienez, baita helburu horientzat programatutako finantza-zuzkidurak ere.

«Ingurumena babestea eta baliabideen efizientzia sustatzea» 2014-2020 programazio-aldirako Programa Operatiboaren 7 lehentasunetako bat da eta hertsiki lotuta dago 2020rako Ingurumen Esparru Programaren 1. helburuarekin: «Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak zaintzeko».

Biodibertsitatea babesteko, espezieek habitaten barruan nola jarduten duten ulertu behar da, baita aldaketei eta presioei nola erantzun liezaieketen ere, horiek jatorri naturalekoak nahiz gizakiaren ondorio izan. Hori zuzenean lotuta dago 1. Lehentasunezko Ardatzarekin (ikerketari, garapena eta berrikuntza sustatzea) eta 2. Lehentasunezko Ardatzarekin (informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eta kalitatea nahiz horiek eskuratzeko aukera hobetzea).

6. Lehentasunezko Ardatzak ere sinergikoa izan behar du gainerako helburuekin. Hark zeharkako elementu erabakigarri baten gisa txertatu behar du ingurumena, ongizatean, enplegua sortzen eta etorkizuna izango duen ekonomia sendo bat garatzen laguntzeko; esaterako, naturan oinarritutako enplegu-aukerak sustatuz, naturarekin lagunkoiak izango diren garraio-korridoreak garatuz, ingurumenari buruzko ezagutza hobetuko duten norako turistikoak edo hezkuntza-bisitak sortuz, eta abar.

Ekintza Planean zehaztutako helburuen eta irizpideen eginkizuna izango da biodibertsitateari onurak ekarriko dizkieten proiektuak modu estrategikoan sustatzea eta/edo EGEF funtsekin finantzatzutako proiektuek biodibertsitatearengan izan ditzaketen inpaktu negatiboak saihesten direla bermatzea.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2030ERAKO BIODIBERTSITATE ESTRATEGIA

[Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategia](#) arlo honetako lehentasunak eta konpromisoak finkatzeko tresna da, begirada 2030. urtean jarrita. Eskualde-aplikazioko ekimen bat den arren, ikuspegi globala ere badu eta Dibertsitate biologikorako 2011-2020 estrategia-planarekin bat egiten du. Hala, aipatutako plana Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenetik, 2020ra bitarteko Biodibertsitateari buruzko Europar Batasunaren Estrategiatik eta 2011-2017 aldirako Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikotik sortu da. Dokumentu horiek guztiak dibertsitate biologikoak nazioartean pairatzen dituen presioei zein mehatxuei aurre egiteko hainbat helburu eta jarduketa ezartzen dituzte. Ildo horretan, bat egiten du, halaber, 2015ean Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030rako Agendako Garapen Jasangarriari buruzko Helburuekin (2015an onartuak), eta 15. helburuak hau adierazten du: «Lur-ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea, desertifikazioaren aurka egitea, lurren degradazioa gelditzea eta dibertsitate biologikoaren galera gelditzea».

Gainera, Estrategiaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programako -Eusko Jaurlaritzaren 15 plan estrategikoetako bat- 1. helburu estrategikoan ezarritakoa betetzea, : «Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak zaintzeko».

2030eko ikuspegitik 4 xede atera daitezke, eta horiek izango dira Biodibertsitatearen Estrategiarako lehentasunezko jarduketa-ardatzak: lehenengo biak natura-ondarea kontserbatzeko alderdietatik lortu dira; hirugarrenak naturaren ezaguerarekin eta kulturarekin zerikusia du eta azkenak gobernantza-sistemarekin. Eta hori guztia ingurune naturalean zeharka eragiten duten politika publikoen ahalik eta koherentzia handiena lortu nahi duen eraginkortasun- eta efizientzia-esparru batean egingo da.

Ekintza Planak 3. Xedea («Naturaren ezaguera eta kultura sustatzea») garatzen lagunduko du. Gizarte zibilak, erakunde pribatuek eta botere publikoek biodibertsitatea babesteko neurriak gauzatzeak duen garrantziari ematen dioten ulermen eta parte-hartze mailaren arabera izango da, 2030erako Euskadiko Biodibertsitatearen Estrategiak aplikatzen denean izango duen arrakasta.

DEMOKRAZIARI ETA HERRITARREN PARTE HARTZEARI BURUZKO EUSKADIKO LIBURU ZURIA

[Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian](#) bildutako gobernantza-ereduak euskal gizartearen gaitasun publikoak eta pribatuak atzeman nahi ditu eta horiengan jardun nahi du, balio publikoa sortzera bideratutako konpromiso kolektiboa bultzatzeko helburuarekin.

Ikaskuntza eta hazkunde partekatuko eredu hori gobernu onaren printzipioetan oinarritzen da: osotasuna, efikazia eta efizientzia, gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzeta. Printzipio horiek, kudeaketa publiko on bat bilatzeaz gain, gure gizartearen arazo garrantzitsuenei erantzun hobea eskaini nahi diete, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat aukerak sortuz eta deliberazio demokratikoa sustatuz. Hau da, komunitatea, herritartasuna eta demokrazia sortuz.

Ekintza Planak biodibertsitatearen inguruko elkarlaneko politikak garatzea sustatuko du, gizarte-harreman berriak eta lankidetzeta-eredu berriak sortuz, parte hartzeko eta gizarte zibilarekiko elkarriketarako guneak eta arlo publikoaren eta pribatuaren erantzukidetzeta sustatuz.



GOBERNU IREKIAREN EUSKADIRENTZAKO 2018-2020 EKINTZA PLANA

[Gobernu Irekirako Aliantzak](#) (Open Government Partnership – OGP) Euskadi hautatu du Tokiko Gobernuen Programan parte hartuko duten mundu osoko 20 eskualdeen artean.

Gobernu Irekirako Aliantza erreferentziako nazioarteko erakunde bat da eta gobernu «irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentiberagoak» sustatzeko tresnak garatzea eta ebaluatzea da bere helburua.

[Gobernu Irekiaren Ekintza Planaren](#) konpromisoak:

1. Kontuak ematea agintaldiko planen bidez
2. Open data Euskadi eta Linked Open data
3. Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin
4. Open Eskola: herritarrentzat irekitako eskola
5. Integritatearen euskal sistema

Ekintza Planak baditu Gobernu Irekiaren Planarekin bat datozen helburuak, 2., 3. eta 4. konpromisoei dagokienez batez ere. Horrenbestez, sinergiak sortu beharko dira bi noranzkoetan.

EUSKADIKO 2020KO AGENDA DIGITALA

[Euskadi 2020 Agenda Digitala](#) Eusko Jaurlaritzak Euskadin Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea egoki sustatzeko diseinatu duen plan estrategikoa da, eta horretarako hainbat neurri traktore eta bultzatzaile antolatu ditu, 2016-2020 aldirako.

2. ardatzean —«Gizarte Jantzia eta Aktiboa»— eta 6. Erronkan —«Herritarren artean teknologien eta edukien erabilera fidagarri eta segurua aktibatzea»—, «Naturari buruzko informazio-sistema, ezagutzasarea eta zientzia herritarra» ekimen traktorea identifikatu da. Herritarrek parte hartzeko ezagutza kolektiboko sare bat garatzea da proiektuaren helburua, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema elikatuko duena.

Herritarren parte-hartzea, eremu digitalean, joera geldiezina da. Joera horri bultzatu egiten diote, gainera, gailu mugikor adimendunen zabalkundeak eta komunikazioa errazagoa eta zuzenagoa egiten duten tresnen agerpenak; baita eduki digitalak oso erraz sortu eta argitaratzeko aukerak ere. Ekintza Plana joera horretaz baliatuko da gure ingurumenarekiko ezagutza sustatzeko, pertsona gisa garatzeko eta gizarteari laguntzeko.

XEDEA: ZER LORTU NAHI DUGU EKINTZA PLAN HORREN BITARTEZ?

Efizientzia, efikazia eta kalitate handiagoak lortu nahi ditugu informazioa sortu, prozesatu eta erabiltzeko orduan, elkarlaneko ekintza eremu kritikoetara eta interes bereziko gaitara bideratuz.

Horretarako, Ekintza Planak joko-arauak eta esparru bat zehazten ditu, datuak eta informazioa biltzen eta erabiltzen dituzten, naturaren kontserbaziorako ezagutza erabilgarria sortzen duten eta balio publikoa sortzen duten eragileei epe ertainera **egonkortasuna eta segurtasuna** emateko.

Elkarlanean oinarrituz, biodibertsitatea babesteko inbertsio eta laguntza publikoaren irizpideak diseinatzea da helburua, horiek administrazio- edo politika-arloetako aldaketetatik haratago ere jarraitutasuna izan dezaten, eta eragile publikoei eta pribatuei (gizarte zibil antolatua, enpresak eta abar) segurtasun- eta laguntza-sare bat eman diezaioten.

PROZESUA: ALDERDI INTERESDUNAK BARNE HARTZEA

Ekintza Plana benetan ezartzeko ezinbestekoa da jarraipen-prozesuan interesa duten alderdiak barne hartzea eta sare iraunkor bat garatzea, hala, horien guztien partaidetza errealak eta eraginkorra lortzeko.

Era berean, interesdun askoren erabateko **konpromisoa** behar da: **denok gara arazoaren eta konponbidearen zati.**

Herritarrak ahalduntzea eta gizarte-harreman berriak sortzea behar-beharrezkoa da biodibertsitateari eta ekosistemen zerbitzuei buruz hartzen diren erabakiak babesteko ezagutza-sare bat ezarri nahi badugu. Orain arte, eragileek modu berezian lan egin dute, diziplinen eta erakundeen bitartez. Lankidetzak eraginkorrak esan nahi du eragile guztiek eragin eta parte hartu dezaketela Ekintza Planaren plangintzan, programazioan, ezarpenean eta jarraipenean. Aldez aurretiko baldintza bat da finantzaketa publikorako lehentasun zuzenak aurkitzeko, ezarpen-esparru bat finkatzeko —premia jakin bati erantzuteko gaitasun onenak dituzten eragileekin partaidetza hobetzeko— eta jarraipen-akordio gardenak eta arduratsuak ezartzeko. Gaitze-prozesuak diagnostikoa, prestakuntza eta lankidetzaren hobekuntza eta inplikaturako eragile guztien erantzuteko gaitasuna hartzen ditu barne.

Prozesu horretan, [Innobasque](#) Berrikuntzaren Euskal Agentziak gizarte-berrikuntzaren esparruko esperientzia, gaitasunak eta bitartekoak eskaintzen ditu, lankidetzak-prozesuetan laguntzeko. Izan ere, horien bitartez parte hartzen dute tokiko eragileek.

Ikuspegi komun eta partekatu bat garatzeak eginkizun aktiboago bat eta erantzukidetasun-esparru bat bereganatzea esan nahi du.

EKINTZAK: 5 ARDATZETAN OINARRITZEN GARA

Euskadirako Ekintza Planak 5 ardatz planteatzen ditu hurrengo bi urte hauetarako lanaren oinarri gisa:

- Naturari buruzko informazio-sistema
- Ezagutza-sarea
- Ezagutza aditua sortzea eta txertatzea
- Finantzaketa publikorako irizpideak
- Herritarren zientzia

NATURARI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMA

XEDEA: ZER LORTU NAHI DUGU?

[Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema](#) informazioa integratzeko, kontsultatzeko eta aztertzeko tresna bat da, datuak berrerrabiltzeko eta pertsona eta erakundeek elkarlanean jarduteko aukera ematen duena.

Plangintza-, kudeaketa-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuetan eskumen publikoak modu egokian garatzeko ezagutza zientifikoa eta teknikoak txertatu eta hura publikoaren eskura jarri behar dugu, bitarteko elektronikoak eta telematikoak erabiliz.



2. IRUDIA. NATURARI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMA

DIAGNOSIA: ZER HOBETU BEHAR DUGU?

AHULTASUNAK

Haren hasierako diseinua arkitektura sendo batean oinarritu zen eta hainbat funtzionalitate hornitu zizkion sistemari, baina helburua ez zen informazioaren eragile ekoizleen eta erabiltzaileen arteko elkarlana erraztu eta sustatuko zuen plataforma bat sortzea.

ARRISKUAK

Eragile batzuen aldetik ez erabiltzea, beren erreminta gisa hartzen ez dutelako.

INDARRAK

Gaur egungo informazio-sistema 2006an hasi ziren garatzen, eta 2010ean aurkeztu zen. Diseinu kontzeptual eta funtzional egokia du.

AUKERAK

Gaur egun, haren kalitatea hobe dezaketen aurrerapen teknologikoak eta plataformak daude. Era berean, biodibertsitateari buruzko datuak jasotzen eta argitaratzen dituzten plataformak daude, eta horiek erreferentzia gisa erabil ditzakegu: [Atlas of Living Australia](#), [EIDOS](#), [Ornitho](#) eta [GBIF](#), besteak beste.



Atlas of Living Australia elkarlaneko proiektu nazionala da, hainbat iturritako biodibertsitateari buruzko datuak gehitzen dituen eta linean doan jartzen dituen.



Eidos

EIDOSek Espainian dauden basaespeziei buruzko informazio ofiziala jasotzen du, Ingurumen Ministerioak azken urteetako hainbat proiektutan jaso duena, PlinianCore nazioarteko estandarrean oinarritutako egitura komun bat erabiltzen.



Ornitho

Ornitho.eus herritarren zientziaren ataria da, Euskal Autonomia Erkidegoko naturari buruzko informazioa bildu eta zabaltzeko. Aranzadi Zientzia Elkartearen inizatiba bat da, Eusko Jurlaritzaren Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari lotuta dagoena.



GBIF —Biodibertsitateari buruzko Munduko Azpiegitura— nazioarteko erakundea eta ikerketa-sarea da, mundu osoko gobernuak finantzatuta, edozein pertsonari, edozein tokitan, Lurreko edozein bizidunari buruzko datuetarako sarbide irekia eta doan ematea helburutzat duena.

EKINTZAK: ZER EGIN NAHI DUGU?

- Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema plataforma teknologiko berri batera migratzea, erabiltzaileen premiei hobeto erantzuteko, beste plataforma batzuekin hobeto integratzeko, prozesuak automatizatzeko eta elkarlanean aritu ahal izateko.
- Sistemara informazioa txertatu ahal izatea normalizatuko duten arauak eta irizpideak onartzea, haren erabilera partekatua eta berrerabilpena bermatuz.

ERAGILEAK: NORK HARTU BEHAR DU PARTE PROZESUAN?

Eusko Jaurlaritzaren arduratzen da sistema eraikitzeaz eta hura zerbitzari publikoetan ostatatzeaz.

Funtzionalitateak, arauak eta irizpideak zehazteko orduan, datuen hornitzaile eta azken erabiltzaile guztien premiak hartuko dira kontuan.

EPEAK: NOIZ GARATUKO DUGU?

2019-2021

Sistema hainbat modulutan dago egituratuta: espezieak, habitatak, lekuak, lege- edo sailkapen-esparruak, erreferentziak, kartografia, multimedia, adierazleak, hitzorduak, kolaboratzaileak, eta horiek pixkanaka migratuko dira plataforma berrira. 2019an, espezieen eta hitzorduen moduluak jorratuko dira. Era berean, bistaratze kartografikoa GeoEuskadi berrian txertatuko da.

AURREKONTUA

500.000 €, Eusko Jaurlaritzaren aldetik.

INPAKTUAK: ZER NOLAKO EFEKTUAK LORTUKO DITUGU?

Lankidetzaren hobetuko da eta datu gehiago sartuko dira sisteman.

EZAGUTZA-SAREA

XEDEA: ZER LORTU NAHI DUGU?

Euskadiko Natura Ezagutzeko Sarea erakundearen eta pertsonen elkarte bat da, datuak eta informazioa biltzen eta erabiltzen laguntzen duena, eta natura kontserbatzeko eta onura publikorako erabiltzeko ezagutza sortzen duena.

Ezagutza-sarearen helburua da gobernantza hobetzea eta ingurumena babesteko lan egiten duten eragile publikoak eta pribatuak elkarrekin konektatzea. Sare honen garapenarekin Informazio Sistema handitu eta hobetu nahi da.

DIAGNOSIA: ZER HOBETU BEHAR DUGU?

AHULTASUNAK

Oraindik ez dugu eraiki epe ertainerako lankidetzaren sare egonkorrik.

ARRISKUAK

Eragile garrantzitsuek beharbada ez dira Sarean sartuko.

INDARRAK

2012tik, urtero egin ditugu bilerak datuen hornitzaileekin eta erabiltzaileekin (lehenik eta behin Natura eta Herritarren Zientziari buruzko Jardunaldiekin eta, gero, Biodibertsitateari buruzko Foro Sozialarekin). Horrek aukera emango digu datuak eta informazioa jasotzen eta erabiltzen eta erabakiak hartzeko orduan ezagutza erabilgarria sortzen lagundu nahi duten tokiko eragileak ezagutzeko.

AUKERAK

Badaude Euskadin tokiko taldeek garatutako ekimenak, eskualde-mailan sarea bultzatzeko eredutzat har ditzakegunak. Gainera, jardunbide egokien hainbat adibide ditugu BID-REX bazkideen artean: [Biodibertsitatearen Sare Nazionala \(NBN\)](#) eta Tokiko Ingurumen Erregistroen Zentroen Elkarte (ALERC), Erresuma Batuan.

NBN

Biodibertsitatearen Sare Nazionala (NBN) Erresuma Batuko erakundea da, lankidetzat eta biodibertsitateari buruzko informazio-trukearen printzipioetan oinarritutakoa. Erakunde eta pertsona askok erregistratzen dituzte datu biologikoak, hainbat sistemak erabilita biltzen dira, adituek egiaztatzen dituzte, erakunde ugari zaintzen dituzte eta gero gehitu eta partekatzen dituzte, eskualdeetan, batez ere Ingurumen Erregistroen Tokiko Zentroek, eta herrian NBN Atlasen bidez, 219 milioi baino gehiago erregistro biologiko duena.



ALERC Ingurumen Erregistroen Tokiko Zentroen (LERC) elkarte da, Britainia Handian. Ingurumen Erregistroen Tokiko Zentroak (LERC) irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, eremu geografiko jakin bateko naturari buruzko informazioa bildu eta kudeatzen dutenak. LERC zentroak adituen sare batekin lankidetzan aritzen dira, informazioa zehatza dela eta informazioaren produktu eta zerbitzuak hartzaile ugariengana, erabakiak hartzeko arduradunak, jendea eta ikertzaileak barne, heltzen direla.



EBO (Euskal Batzorde Ornitológikoa) izaera zientifiko eta tekniko duen erakundea independentea da, beste erakunde, elkarte edo administrazioarekin menpekotasunik ez duena, hegaztien ezagutzaren eta kontserbazioaren esparruan.




ERRONKAK

- Administrazioen arteko koordinazioa, nukleo gisa
- Komunikazioa – eragileei egokitutako barneko eta kanpoko komunikazio-plana (sareko balioa eta sarera atxikipena)
- Funtsezko eragileen inplikazioa: teknologia-zentroak, unibertsitateak
- Gizarte-aktibazioa

PRINTZIOIOAK

- Lankidetzeta eta koordinazioa
- Trakzioa
- Inplikazioa
- Balio publikoa

3. IRUDIA. EZAGUTZA-SAREA: ERRONKAK ETA PRINTZIOIOAK



4. IRUDIA. NOLA ARTIKULATU EZAGUTZA-SARE BAT?

EKINTZAK: ZER EGIN NAHI DUGU?

- Egiturazko arauak, bazkideen egiaztapena eta Sarearen funtzionamendua onartzea, epe luzeko lankidetzaz-esparru iraunkor bat bermatu, eskumeneko interesak eskaini eta bazkideen artean konfiantza sortu ahal izateko.
- Nazioarteko ezagutza-sareetan sartzeari ([Biodibertsitatea ezagutzeko aliantzan](#)) (GBIC2), adibidez).

ERAGILEAK: NORK HARTU BEHAR DU PARTE PROZESUAN?

Eusko Jaurlaritzak arduratzen da sareko kide izateko bete behar diren lege-esparruez eta administrazio-prozedurez.

Hauk izan daitezke, besteak beste, sareko kideak: administrazio publikoak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak, enpresak, gizarte-erakundeak eta natura kontserbatzen parte hartzen duten pertsonak.

EPEAK: NOIZ GARATUKO DUGU?

2019-2021.

INPAKTUAK: ZER NOLAKO EFEKTUAK LORTUKO DITUGU?

Ikuspegi komun eta partekatu bat lortzeko helburuarekin aurrera egiteko (eskualdeko biodibertsitatea ezagutzeko itun bat garatuz, adibidez), rol aktiboago bat eta baterako erantzukizun-esparru bat izan behar dira (parte hartzen duten eragileen erantzukizunpeko adierazpen bat jaso behar da bertan).

Ezagutza-sarea **agerleku dinamiko** baten gisa artikulatu behar da, bertan parte hartuko duten eragileen komunikazioa, gaikuntza eta baterako sorkuntza ahalbidetuz.

EZAGUTZA ADITUA SORTZEA ETA OSATZEA

XEDEA: ZER LORTU NAHI DUGU?

Azterketa integral baterako erabilgarriak izan daitezkeen ezagutza mota desberdinak osatu behar ditugu; ondo ezagutu behar ditugu eremua, ekologia, administrazioa eta kudeaketa, IKTak, Big Data, gauzen Internetak, espezializazio adimenduna, politiken ebaluazioa eta Gobernu Irekia, eta hedapen zientifikoa. Horrela hobeto ulertuko ditugu prozesu ekologikoak testuinguru sozioekonomiko batean, eta hobeto ebaluatu eta komunikatu ahal izango dugu ekintza publikoa.

DIAGNOSIA: ZER HOBETU BEHAR DUGU?

AHULTASUNAK

Tradizioz, naturarekin modu zuzenenean lotuta egon den ezagutza erabili da ezagutza aditu gisa, eta ia ez da beste diziplina batzuetako adituekin osatu.

ARRISKUAK

Ikerketaren eta kudeaketaren arteko etena.

Diziplina bakoitzak bere lengoia erabiltzen du, eta beste eremu batzuetatik datozen adituek zailtasunak izan ditzakete horiek ulertzeko orduan.

INDARRAK

Innobasque agentziarekin, gizarte-berrikuntzako eta gobernantza publikoko alderdiak sartzen ari gara Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren ([2020ko PEGIP](#)) eta [Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Liburu Zuriaren](#) hedapenaren esparruan.

AUKERAK

Biodibertsitatearen kontserbazioan berrikuntza teknologikoa aplikatzea (IKT, Big Data eta abar), datuak errazago jasotzeko eta, ekintzen jarraipenaz haratago, benetako ebaluazioa sustatzeko, horrek adierazleen kausalitateak eta garrantzia aztertzea ahalbidetuko baitigu.

Biodibertsitatearen alorreko ezagutza beste esparru eta diziplina batzuekin (teknologikoak, sozioekonomikoak eta abar) konektatzean, hura are gehiago ikusten da.



PEGIP 2020 planaren misioa, ondorengo hau da: Administrazio berritzailea eta irekia sortzea, gizarteari kalitatezko zerbitzuak, eraginkorrak, efikaziadunak eta seguruak emango dizkiona, ingurunearekin elkarlanean eta herritarren parte-hartze aktiboa aintzat hartuta; hau da, pertsonak izango dira aldaketaren protagonista. Hori guztia, gainera, gobernantza-balio berriak oinarri hartuta egingo da, hots: irekia izatea, emaitzetara bideratutako orientazioa, gardentasuna eta berrikuntza.

**EUSKADIKO
DEMOKRAZIARI
ETA HERRITARREN
PARTE-HARTZEARI
BURUZKO LIBURU ZURIA**

Liburu Zurian bildutako gobernantza-ereduak euskal gizartearen gaitasun publikoak eta pribatuak atzeman nahi ditu eta horiengan jardun nahi du, balio publikoa sortzeko konpromiso kolektiboa bultzatzeko helburuarekin.



Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia, irabazi asmorik gabeko eta herri-onurako elkarte pribatua da, aliantza publiko-pribatu bat eratu duena, ekinbide berriak sustatzeko, eta berrikuntza-politika berrien diseinua eta inplementazioa hobetzeko.



ERRONKAK

- Lengoia komunak aurkitzea
- Ikerketaren eta kudeaketaren arteko etena
- Lehentasunak finkatzeko metodo berriak garatzea

PRINTZIOAK

- Berrikuntza
- Konexioa
- Espazio partekatuak

5. IRUDIA. EZAGUTZA ADITUA SORTZEA ETA OSATZEA: ERRONKAN ETA PRINTZIOAK

EKINTZAK: ZER EGIN NAHI DUGU?

- Biodibertsitatea babesteko sistemaren mailen eta engranajeen garrantzia ikusgarri bihurtzeko espazio eta lengoia komunak aurkitzea eta integrazioan elkartzeko jarraibideak adostea.
- Biodibertsitatearen kontserbazioan berrikuntza teknologikoa aplikatzea (IKT, Big Data eta abar), datuak errazago jasotzeko eta, ekintzen jarraipenaz haratago, benetako ebaluazioa sustatzeko, horrek adierazleen kausalitateak eta garrantzia aztertzea ahalbidetuko baitigu.

ERAGILEAK: NORK HARTU BEHAR DU PARTE PROZESUAN?

Biodibertsitatean, administrazio-kudeaketan, gobernantzan, gizarte- eta teknologia-berrikuntzan, politiken ebaluazioan, hedapen zientifikoan, hezkuntzan eta abarretan adituak.


EPEAK: NOIZ GARATUKO DUGU?

2019-2021.

INPAKTUAK: ZER NOLAKO EFEKTUAK LORTUKO DITUGU?

Ezagutza txertatzeak esan nahi du, batetik, biodibertsitatearen esparruan sortzen den ezagutza balio-kate baten gisa ulertzea. Bertan, maila bakoitzak du bere balioa, baina balio hori handitu egiten da gainerakoekin konektatzean, eta horrek sistemaren efikazia areagotzen du eta ikerketaren eta kudeaketaren artean dagoen etena gainditzen du.

Oso garrantzitsua da biodibertsitatearen ezagutzarekin zuzenean lotuta ez dauden eragileek ere parte hartzea, aukerak ikus baititzaizkete berrikuntzan eta tokiko enplegu-aukeren sorkuntzan.



6. IRUDIA. BALIO-KATEA

FINANTZAKETA PUBLIKORAKO IRIZPIDEAK

XEDEA: ZER LORTU NAHI DUGU?

Aurrekontu-esleipenean eta funts publikoek finantzatutako ekintzen inpaktuaren jarraipenean lehentasunak ezartzea, hala, biodibertsitatearen gaineko informazio garrantzitsua eskaintzen duten ekintzak finantzatuko direlako eta, gainera, sortutako informazioa berriz erabili ahal izango delako, balio publiko berriaren ekarpena egiteko.



7. IRUDIA. GIDAREN HELBURUAK

DIAGNOSIA: ZER HOBETU BEHAR DUGU?

AHULTASUNAK

Joko-arauak arautuko dituen eta irizpideak ezarriko dituen esparru egonkor bat falta da, honako hauek ahalbidetuko dituena:

- Informazioa lortzeaz gain, natura kontserbatzearen kultura sustatzea.
- Eraitzen ebaluazio eraginkor bat egitea.

ARRISKUAK

Esparru politiko eta arau-emaila aldatzeko; hornitzaile handientzat pentsatutako kontratazio-araudiaren eskakizunak. Horrek desabantailan jartzen ditu biodibertsitateari buruzko datuen hornitzaile txikiak.

INDARRAK

Eusko Jaurlaritzan, dirulaguntzetan, akordioetan eta kontratuetan dokumentazioa aurkezteko betekizunak txertatu dituzte. Betekizun horiei esker, Informazio Sistematan sartu ahal izan dira datuak.

AUKERAK


Eragileen partaidetza sustatzea irizpide horien ezarpenean; horrek iradokizunak txertatzea ahalbidetzen du, baita esparru hori aldatzea eta hari izaera partekatua ematea ere. Horien lotura eta partaidetza oso garrantzitsuak dira, eta ez finantzaketa-irizpideak ezartzeko bakarrik, baizik eta lehentasunak finkatzeko orduan erakunde publikoei laguntzeko ere.

Irizpideak eraikitzeko prozesuan, [GBIO esparruak](#) (Global Biodiversity Informatics Outlook) aukera ezin hobe eskaintzen du alderdi interesdun guztien arteko ahaleginak lerrotzeko eta, hala, biodibertsitatearen ulermen integratua ahalbidetzeko. Esparru hori Euskadin erabiltzeak –osatuz eta tokiko gure premietara egokituz– aukera ematen digu indarrean dauden ekimenak areago koordinatzeko eta integratzeko, hasi lokaletik eta globalera bitartean. Hura gidan txertatzeko, behar-beharrezkoa izango da bosgarren dimentsio bat txertatzea, erabakiak hartzeari buruzkoa; hark zaintzaren, ebaluazioaren eta informazioaren esparru integratu bat ezartzea ahalbidetuko digu narriadura naturala, biodibertsitatearen galera eta zerbitzu ekosistemikoen degradazioa eteten lagunduko duten politiken exekuzio-mailari dagokionez.



Biodibertsitateari buruzko ikuspegi informatiko orokorrak (GBIO, Global Biodiversity Informatics Outlook) esparru bat eskaintzen du interesdun guztiek ahaleginak norabide jakin batean egiteko, biodibertsitatearen ulermen integratua izateko. GBIOk lau eremu nagusi identifikatzen ditu, zein bere oinarriko osagaiekin, ahaleginak eta funtsak koordinatu ahal izateko: kultura, datuak, ebidentzia, ulermena.





ERRONKAK

- Proiektuetan kalitatezko irizpideak sustatzea
- Biodibertsitatea babestearen kultura sustatzea
- Printzipioak eta irizpideak ebaluatzea - egokitzea

PRINTZIOAK

- Partaidetza
- Lehenetasun partekatua
- Gardentasuna eta kontuak ematea

8. IRUDIA. FINANTZAKETA PUBLIKORAKO IRIZPIDEAK: ERRONKAN ETA PRINTZIOAK

EKINTZAK: ZER EGIN NAHI DUGU?

- Gida bat egitea.
- Gida hori oinarri gisa erabiltzea, diru publikoarekin finantzaturako proiektuak lehenesteko eta ebaluatzeko.

ERAGILEAK: NORK HARTU BEHAR DU PARTE PROZESUAN?

Proiektuak garatuko dituzten tokiko eragileak eta administrazio publikoak izango dira, azkenean, diseinuaren partaideak eta gidaren hartzailak. Administrazio publikoen kasuan, proiektuak lehenesteko, funtsak esleitzeko eta finantzaturako ekintzek eragindako inpaktuaren jarraipena egiteko balioko die gidak. Tokiko eragileentzat, berriz, oso erreminta erabilgarria izango da Euskadiko biodibertsitatearen inguruko ezagutza hobetuko duten proiektuak diseinatzeko eta ezartzeko.

EPEAK: NOIZ GARATUKO DUGU?

2019-2021.


AURREKONTUA

10.000 €, Eusko Jaurlaritzaren aldetik.


INPAKTUAK: ZER NOLAKO EFEKTUAK LORTUKO DITUGU?

Irizpideen arteko lotura dela-eta, gida on batek ez ditu printzipioak bakarrik barne hartu behar; izan ere, **sareko lana** egiteko moduak eta emaitzen eta inpaktuen **ebaluazio partekatua** jaso behar ditu.

Elkarlanean aritzea lagungarria izan daiteke tokiko herritarrak (udalerrri txikiak, elkarteak...) proiektuak egiten hasteko, betiere beste eragile batzuen esperientzian oinarrituz eta beste proiektu batzuetan erabilgarriak izan diren erremintak erabiliz.



9. IRUDIAK. IRIZPIDEAK ARTIKULATZEA



HERRITARREN ZIENTZIA

XEDEA: ZER LORTU NAHI DUGU?

Boluntarioek esparruko behaketak biltzen dituzten biodibertsitatea aztertzeko proiektu asko daude. Herri-ekimen zientifiko horiek kalitatezko datu eguneratuak jasotzeko, eta, era berean, herritarrak biodibertsitatea zaintzeko jardueretan parte hartzera bultzatzeko bitarteko baliotsuak dira. Boluntarioen ekarpenari esker, eskala handiko lanak egin daitezke; horretarako profesionalak lortzea, berriz, zaila izango litzateke.

Herritarren zientzia errealitate bat da dagoeneko Euskadin. Sistemari informazio baliagarria eskaintzeaz gain, biodibertsitatearen eta hura balioan jartzearen inguruko galdera berriak egiten lagun dezake. Testuinguru horretan, oso garrantzitsua da datuen kalitatea bermatzea, eta horiek politiketan eta araudian zehaztutako helburuetara egokitzea.

Herritarren zientziak kalitatearen eta kantitatearen faktoreak hartu behar ditu barne, geografiaren aldagaia (datuak behar diren lekuan hedatzea) eta kontserbazio-premiak (jasotako daturik gabeko espezieen, habitaten edo lekuen inguruan) txertatuz.

Horretarako, kontserbazio-helburuetara egokiro bideratutako jarraipen-programak diseinatu behar dira, baita protokolo zehatz baina erabilgarriak ere; baina, batez ere, milaka pertsona boluntariok egiten duten ahaleginak bideratuta egon behar du ingurumena kontserbatzeko eta babesteko eta baliabideen eraginkortasuna sustatzeko helburuetara. Hau da, ustekabeko oharretatik gidatutako oharretara igarotzeko beharrezko diren urratsak eman behar ditugu.

DIAGNOSIA: ZER HOBETU BEHAR DUGU?

AHULTASUNAK

Ezusteko behaketak jasotzen dituzten boluntario asko daude, helburu jakin batzuetara lotuta egon gabe. Hori dela-eta, behaketa gehiago daude leku eroso eta irisgarrietan, meteorologia-baldintza onenetako egunetan edo oporretan eta asteburuetan, eta gehien ikusten diren edo enblematikoagoak diren espezieei dagokienez. Horrenbestez, datuak falta dira helezinak edo urruti geratzen diren lekuetan, edo gauzez atera ohi diren, horren erakargarriak ez diren edo identifikatzen edo kokatzen zailagoak diren espezieen kasuan.

ARRISKUAK

Gizartearen mobilizaziorik eza, belaunaldien arteko erreleborik eza, datuak balioztatzeko aditurik eza, erakundeek boluntarioek eskainitako informazioarekiko duten konfiantzarik eza, erakundeen borondaterik eza.

INDARRAK


Espezie-populazio jakin batzuen (hegaztiak eta tximeletak, adibidez) kasuan, Euskadin duela hainbat hamarkada hasi zen geratzen boluntarioek parte hartu ahal izateko jarraipen sistematikoa, boluntarioen aldetik nahiz administrazio publikoen edo natura-elkarteen ekimen bidez.

Ornitho.eus 2015ean aurkeztu zen, Naturaren Informazio Sistemari atxikitako herritarren zientziarako atari gisa. Ornitho.eus bidez behaketa asko erregistratu eta sartu dira Informazio Sistemari.

AUKERAK


Azken hamarkadan, herritarren zientziarekin lotutako ekimenen kopurua izugarri hazi da telefono adimendunen eta aplikazioen erabilera orokortua dela eta, horiei esker orain askoz errazagoa baita basoko bitzta erregistratzea.

BID-REX kideen jardunbide egoki askok gida gisa balio dezakete: [Field Studies Council \(FSC\)](#) boluntarioen prestakuntza-ibilbidea eta [ALERC akreditazio-sistema](#), biak Erresuma Batukoak.



Landa-azterlan Kontseilua, FSC, Erresuma Batuko ingurumen-hezkuntzako ongintzako organizazioa da, ingurumena aurkitu, aztertu eta ulertzeko informazio- eta aisialdiko adin eta trebetasun guztietako pertsoneri zuzendutako aukerak eskaintzen dituena.

BioLinks FSC erakundearen proiektua da, identifikatzen zailak diren espezieak identifikatzeko eta datu gutxi dauzkan espezieak erregistratzeko goi mailako boluntarioen trebakuntza bultzatzen duena. BioLinks prestakuntza-ibilbidea eskema argia emateko diseinatu da hau jakiteko: nola proiektuaren jarduerak bideratuko duten boluntarioen garapena ondorengo funtsezko lau kompetentzia hauetan: Ezagutza, Trebetasunak, Motibazioa eta Konfiantza. Boluntarioek haien kompetentzia-maila ebaluatzeko erabili dezaketen tresna bat da, eta horrela zehazteko zein jarduera diren egokiak haientzat.



LERC akreditaziaren helburuak hauexek dira: estandarren gutxieneko maila zehaztea, LERC zentroetan konfiantza sortzea, haiek direlako biodibertsitateari buruzko informazioa mantentzen dutenak, eta baliabide publikoak ondo kudeatzea.




11. IRUDIA. HERRITARREN ZIENTZIA: ERRONKAK ETA PRINTZIPIOAK



12. IRUDIA. NOLA HOBETU BOLUNTARIOEK JASOTAKO DATUEN KANTITATEA ETA KALITATEA

EKINTZAK: ZER EGIN NAHI DUGU?

- Jarraipen-programak diseinatzea, eredu komun batean oinarrituz:
 - Modu egokian diseinatuta, kontserbazio-helburuekin bat etorritz
 - Modu egokian definitutako eta boluntario guztiek bereganatutako datuen bilketarako protokoloak
 - Prestakuntza egokia duten boluntarioak
 - Trebakuntza-erakundeen egiaztapena
 - Boluntarioen lana aitortzeko pizgarriak



13. IRUDIA. JARRAIPEN-PROGRAMAK

ERAGILEAK: NORK HARTU BEHAR DU PARTE PROZESUAN?

Administrazio publikoek eta datuen erregistroan parte hartzen duten tokiko eragileak.

EPEAK: NOIZ GARATUKO DUGU?

2019-2021.

INPAKTUAK: ZER NOLAKO EFEKTUAK LORTUKO DITUGU?

Herritarren zientzia ez da naturaren kontserbazioarekin konprometituta dauden herritarrengana gerturatzeko estrategia bat bakarrik. Hurbilketa erabilgarri bat izan daiteke sistemari datuak eskain diezazkioketen beste eragile batzuegana iristeko (mendi-klubak, ehiza-federazioak, arrantzaleak, nekazariak, surflariak, argazkilaria eta turismoaren sektoreko eragileak, adibidez).

ĒKINTZA-PLANAREN EBALUAZIOA

Ondorengo alderdi hauek aztertzen jarriko dugu arreta:

- GAUZATZEA. Egindako plangintzaren xehetasun maila: zerbaitek egin al du kale aurreikusitakoaren gainean? Kanpoan utzi al ditugu intereseko gaiak? Uste baino gehiago kostatu zaigu, denborari edo kostu ekonomikoari dagokionez?
- Emaitzak eta eraginak ebaluatzea: prozesuak balio izan du nahi genuenerako? Gogobetegarria izan da talde osoarentzat ala bakarrik batzuentzat? Zer ikasi dugu?...

Tarteko agente guztien ikuspegia funtsezkoa da ebaluazioan, horregatik ebaluazio-prozesua aldi berean parte-hartze prozesua izango da, Ekintza Planaren diseinuan egin den bezala, parte hartzeko tailerrak eta galdetegiak erabilia. Horrela, Ekintza Planaren betetze-maila, emaitzak eta eraginak ebaluatzeaz gain, ikasketa-prozesua (zer egin dugu txarto eta zer ondo jarduerak abiatzean?) eta elkarren arteko sorkuntzarako prozesua ere (zer eraiki ahal dugu ikasitakotik aurrera egiten jarraitzeko?) izango dira. Jarraipenerako eta prozesuaren kalitatea neurtzeko adierazleak ere ebaluazio-prozesuan zehaztuko dira.

ERANSKINA. JARDUNBIDE EGOKIAK ETA BESTE ERREFERENTZIA BATZUK

- BID-REX EUSKADIKO PARTE-HARTZE TAILERRETATIK ATERATAKO ONDORIOEN DOKUMENTUAK
 - Informazio beharrak [Ondorioen txostena \(PDF, 2 MB\)](#) 2017/02/06
 - Informazioa premietara egokitzea [Ondorioen txostena \(PDF, 1 MB\)](#) 2017/05/23
 - Informazio-fluxuak [Ondorioen txostena \(PDF, 1 MB\)](#) 2017/11/15
 - Gida eta Ekintza Plana prestatzea [Ondorioen txostena \(PDF, 3 MB\)](#) 2018/11/20-21
- Atlas of Living Australia
 - <https://github.com/AtlasOfLivingAustralia>
 - <https://www.ala.org.au/>
 - <https://www.ala.org.au/who-we-are/downloadable-tools/open-source-software/>
 - <https://living-atlases.gbif.org/>
 - https://assets.ctfassets.net/uo17ejk9rkwj/1SGvHsuXkQi2Y4Kgg2Qea6/f12751fe0517c7962d0b7b3bf6b3a517/ALA_Key_Technical_Documentation_Spanish_1_.pdf
- EIDOS datu-basea
 - <https://github.com/BancoDatosNaturaleza/EIDOS>
- Ornitho
 - <https://www.ornitho.eus/>
- GBIF
 - <https://www.gbif.org/>
- Portal for ArcGIS
 - <https://enterprise.arcgis.com/es/portal/>
- National Biodiversity Network (NBN)
 - <https://nbn.org.uk/>
 - https://www.interregeurope.eu/fileadmin/user_upload/tx_tevprojects/library/file_1532341136.pdf
- NBN Action Plan 2016 – 2020
 - https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/01/NBN_Action_Plan_final.pdf
 - <https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/01/Action-Plan-Table-of-Changes-March-2016.pdf>
- NBN Communications Strategy

<https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/03/Communications-Strategy-for-web-1.pdf>

- NBN Strategy 2015 – 2020

<https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/03/NBN-Strategy-2015-2020.pdf>

- NBN Rules and Standing Orders Approved 2017

<https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/07/2.-NBN-Rules-and-Standing-Orders-Approved-July-2016.pdf>

- Data Exchange Principles <https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/07/8.-Data-Exchange-Principles.pdf>

- Running a Biological Recording Scheme or Survey Guidebook

<https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/02/NBN-52-Bio-Recording-web.pdf>

- Improving Wildlife Data Quality Guidebook

<https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/02/NBN-Imp-Wildlife-Data-Quality-web.pdf>

- The Darwin Guide to Recording Wildlife

<https://nbn.org.uk/wp-content/uploads/2016/02/Darwin-Guide-to-Recording-Wildlife.pdf>

- Association of Local Environmental Records Centres (ALERC)

<http://www.alerc.org.uk/>

- Global Biodiversity Informatics Outlook (GBIO)

<https://www.biodiversityinformatics.org/>

- White paper: A recommended design for “BiodiversityKnowledge”, a Network of Knowledge to support decision making on biodiversity and ecosystem services in Europe

http://www.vliz.be/projects/biodiversityknowledge/images/PDF/WhitePaper_web.pdf

http://www.vliz.be/projects/biodiversityknowledge/images/PDF/BDK_ExecSum_prefinal.pdf

- Biolinks

<https://www.fscbiodiversity.uk/>

- FSC BioLinks Development Plan for Training Provision

[https://www.fscbiodiversity.uk/sites/default/files/FSC%20BioLinks%20Development%20Plan%20for%20Training%20Provision%20\(22-01-2018\).pdf](https://www.fscbiodiversity.uk/sites/default/files/FSC%20BioLinks%20Development%20Plan%20for%20Training%20Provision%20(22-01-2018).pdf)

https://www.interregeurope.eu/fileadmin/user_upload/tx_tevprojects/library/file_1532340627.pdf

- ALERC - Association of Local Environmental Records Centres

<http://www.alerc.org.uk/>

- Knowledge hub

<https://www.khub.net/>

- ALERC Accreditation

<http://www.alerc.org.uk/alerc-accreditation.html>

<http://www.alerc.org.uk/criteria-and-guidance.html>

https://www.interregeurope.eu/fileadmin/user_upload/tx_tevprojects/library/file_1532340689.pdf

- Horizon Scanning

<https://www.gov.uk/government/groups/horizon-scanning-programme-team>

- JNCC (Joint Nature Conservation Committee)

<http://jncc.defra.gov.uk>

- Evidence Quality Assurance Policy

<http://jncc.defra.gov.uk/page-6675>

- Partnership for Biodiversity in Planning

<https://www.biodiversityinplanning.org/>

- Wildlife Assessment Check

<https://www.biodiversityinplanning.org/wildlife-assessment-check/>

- Green paper on Citizen Science for Europe: Towards a society of empowered citizens and enhanced research

<https://ec.europa.eu/digital-single-market/en/news/green-paper-citizen-science-europe-towards-society-empowered-citizens-and-enhanced-research>

- Citizen science for environmental policy. Development of an EU-wide inventory and analysis of selected practices – Study <https://publications.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/842b73e3-fc30-11e8-a96d-01aa75ed71a1/language-en>

- User's Guide for Evaluating Learning Outcomes from Citizen Science

http://dl.allaboutbirds.org/free-download-users-guide-evaluating-learning-outcomes-citizen-science?_hstc=161696355.8ef11b1f55cd85971ea6ae011c315bcb.1467626939165.1467626939165.1468329211802.2&_hssc=161696355.1.1468329211802&_hsfp=342975559